

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA


Uda aldean hasiko dira banatzen Interneteko IP zenbaki berriak

WEB DOMEINU bakoitzaren atzean Interneteko Protokoloa (IP) izeneko zenbaki bat dago. Zenbaki horren egitura honakoa da: abc.def.ghi.jkl, hau da, puntuz bereizitako hiru zifretako lau zenbaki, guztira 4.000 milioi. Gero eta gehiago dira bere domeinuaren atzean arestian aipatu zenbaki finko horietako bat egotea eskatzen duten zerbitzuak; adibidez, denda birtuala edota estraneta nahi dutenek zerbitzari seguru deitzen dena antolatu behar dute eta horrek IP finkoa izatera behartzen du.

Otsailaren hasieran, Interneteko kodeak eta zenbakiak banatzen dituen erakunde ofizialak, ICANNek, egungo egitura duen azken IP sorta banatu berri zuela iragarri zuen. Uda partean beste zenbaki batzuk beharko dira Internetek sortzen dituen beharrei aurre egiteko. Zenbaki berriak, IPv6 izendatuko direnak, orain arteko IPv4 baino egitura luzeagokoak dira eta guztira 340 sestiloizko zenbaki daudenez, lasai egon gaitezke, etorkizuna ziurtatuta baitago.



Vostok lakuak bere sekretuei eutsiko die oraingoz



OCEANOGRAPHERSCHOICE.COM

ANTARTIKAKO VOSTOK LAKUA 4.000 metroko sakoneran dago eta aspaldidanik izan da zientziaren helburu. Lakuak ez du kutsadurarik, eta zientzialariak irrikan daude haren urek zein ustekabe gordetzen duten jakiteko; agian izaki ezezagunak, agian ezer ere ez, auskalo.

Abenduaren hasieran espedizio errusiar bat zuloa egiten hasi zen, baina zulaketak aurrera egin ahala arazoak biderkatu egin ziren. Antzadenez, izotzaren urtze-puntua asko aldatzen da sakondu ahala, eta uraren eta izotzaren artekoa den gel itxurako substantzia sortzen da, zulatzailearen lana ezinduz. Bertako uda amaitzean dago, eta lanak bertan behera utzi behar dira datorren abendura arte.

Ea datorren urtean zerbait gehiago esaterik dugun.

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Zain eta arteria artifizialak

Ikerlari estatubatuar batzuek medikuntzan erabilgarri izan daitezkeen odoleraiko ubideak prest omen dituzte. Zain eta arteriak hartzaileen zelulekin osatzen dira, eta ezarri baino bederatzi hilabete lehenago prestatzen hasi behar dira. <http://ttiki.com/23046> (Frantsesez)

Anestesia orokorraren mekanismoak hobeto ulertu nahian

William Morton dentistak 1846an egin zuen lehen aldiz anestesia orokor saio bat, eterra erabiliz. Orduz gerotzik ikerketa ugari egin dira anestesia orokorraren pean dauden pertsonen neuronetan zer gertatzen den jakiteko. <http://ttiki.com/23047> (Gaztelaniaz)

SOHOk bere bi milagarren kometa aurkitu du

Eguzkiaren eta Heliosferaren Behategiak (SOHO) bi milagarren kometa topatu du eta horrela, mundu osoko zientzialarien laguntzari esker, garai guztietako kometa-aurkitzaile nagusia bilakatu da. Gertaera honek garrantzi handia du, are gehiago SOHO ez zutela kometak aurkitzeko diseinatu jakinda. <http://ttiki.com/23048> (Gaztelaniaz)